



# 12.742 KM BAIETZ!

## MARTXOAREN 26AN, ZATOZ EUSKARAREN ALDEKO ERRONKAN PARTE HARTZERA!

2021ean Araba Euskaraz kanpainan gauzatutako 10.000 km baietz! erronka berreskuratuko dugu martxoaren 26an; baietz oraingoan guztion artean lurraren diametroa osatu: 12.742 kilometro baietz! Ibilbidea Zumalakarregi etorbidean prestatuko dugu 09:00etatik 19:00etara.

Haur, gazte eta helduoi zuzendutako ekimena da: Zumakarregi etorbidea kilometro bateko ibilbidea bihurtuko dugu bakoitzak nahi beste joan-etorri burutu ditzan. Guztion artean egindako kilometroak zenbatzeko, kontrol guneak jarriko ditugu ambulatorioan eta Gurutze Gorrian.

### AZOKA, TXOSNA ETA KALE ANIMAZIOA

Ibilbidea girotzeko kale animazioa izango dugu egunean zehar eta bertoko produktuen azoka eta txosna ere kokatuko ditugu ibilbidean.

Azokan parte hartu nahi izanez gero ondorengo galdetegia erantzun:

azokan  
izena eman 

# 12.742 km baietz!

MUNDUA GURUTZATU  
EUSKARAREN ALDE!

### LAGUNTZAILEAK BEHAR DITUGU

Ekitaldia behar bezala burutu dezagun, kontrol guneetan eta ibilbidean zehar arituko den laguntzaile taldea osatu behar dugu. Animatu eta izena eman ondorengo formularioan:

laguntzeko  
prest nago 

## HEZKIDETZARI BURUZKO INKESTA

*Lagundu Ikastolako Berdinatasun Topagunea Hezikidetzari planerako diagnosia egiten. Erantzun ondorengo galdetegia, ahal dela familian, zergatik ez?*

erantzun 

